



3HI-111/05-P05-TR  
GHI-132/05-P05-TR

TEODORO OLEA ITURREGI, EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN  
BATZORDEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Uztailaren 26an Vitoria-Gasteizen Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeak egindako 4/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

I. Debako udalerriko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldeko txostena egitea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduaren 4/1990 Legean, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko 5/1993 Legean adierazitakoaren arabera, eta Arau Subsidiarioak Aztertze dokumentua izapidetzeko asmoz igorritako 2005eko abenduaren 22ko data duen Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordearen aurreko txostenean ezarritako baldintzak betetzearekin lotuta.

Hala ere, AU.02 Miramar- Udal Pilotalekua Ingurunea izeneko eremuan zegoen eraikina eraitsi eta berriz eraiki dutela kontuan hartuta, Lurralde Antolaketa Batzordearen aurreko txostenean ezarritako baldintza mantentzen da eremu horrekiko. Bertan honako hau adierazten zen: "Miramar Hotela ordezkatzeko aukera baimenduz gero, espedientea Kostaldee buruzko Legea egokituko da (20 metroko babes-zortasuna)".

II.- Ziurtagiri honekin batera doazen Uren Zuzendaritzak (I. Eranskina) eta Garraioaren Azpiegituren Zuzendaritzak (II. Eranskina) egindako txostenak organo eskudunari igortzea, honek behin betiko onar ditzan."

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko uztailaren 30an.

IDAZKARIA



Izta.: Teodoro Olea Iturregi.